

62. FITXA Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: EAEko toki-entitateak; EAEko tokiko organismo autonomoak eta EAEko tokiko merkataritza-sozietateak.

Sarbide-esteka: [2024ean immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak garatzeko dirulaguntzak - Eusko Jaurlaritza \(euskadi.eus\)](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2024ko urriaren 2koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bitartez oinarriak onartzen baitira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta 2024. urterako deialdia egiten baita.](#)

Eremuak: Immigrazioa

Zenbatekoa: 1.330.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/11/17

Laburpena

Deialdi honen xedea da laguntza ekonomiko hauek arautu, eta 2024. urterako deialdia egitea: EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei laguntza ekonomikoak ematea, **immigrazioko teknikariak kontratatzen jarraitzeko** eta **immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak egiteko**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. Ierroa: Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak: immigrazio arloko teknikarien kontratazioari eusteko finantzaketa emango da, baldin eta, teknikari horiek kontratatzeko, laguntza hauen aurreko deialdiren batean dirulaguntzaren bat jaso bada eta 2023. ekitaldian indarrean egon bada.

Immigrazio-teknikarien lana zeharkakoa izango da, eta arlo guztiak engaiatu eta inplikatu daitezen ahaleginduko da, migrazio-fenomenoaren politika espezifikoak politika orokorren barnean hartzea

lortzeko eta, era horretan, udal-mailako baliabideak eta zerbitzuak aukera-berdintasunaren arabera normaltasunez eskuragarri jartzeko.

Halaber, kontratatutako immigrazio-teknikariak honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:

- 1.- Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan, euskal politika diseinatzen, egikaritzen eta ebaluatzen laguntzea.
- 2.- Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak edo EAEko toki-entitateek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek sustatutako alderatze- eta sare-laneko espazioetan parte hartzea.
- 3.- Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin batera koordinatzea haren mende dauden zerbitzuak, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak sustatu eta zuzendutako politika eta estrategia orotan.

2. lerroa: Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jardueretarako laguntzak: immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jardueren prestaketa edo egikaritza finantzatuko da.

Gastuetarako aldi hautagarria

Kontratatutako langileen jarduna betetzeko eta jarduerak egiteko epea **2024. urtea** da.

Laguntzen zenbatekoa

1. lerroa: Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak 2024ko ekitaldiari dagokion langileen kostua finantzatuko du, **urtean 30.000,00 euroko zenbatekoarekin, lanaldi osorako kontratatutako immigrazioko teknikari bakoitzeko**. Zenbateko hori kontratatutako langilearen lanaldi-dedikazioaren ehunekoaren arabera murriztuko da.

2. lerroa: Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jardueretarako laguntzak: Diruz lagundutako EAEko toki-entitateek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek dirulaguntza honen xede den aurrekontu osoaren **% 25** finantzatu beharko dute gutxienez.

Entitate onuradun bakoitzari emandako dirulaguntza ez da inola ere **40.000 eurotik** gorakoa izango.